



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2019KO URRIAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2019ko urriaren 30ean arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Olatz Dorai, Julen Beunza, Santos Etxegia, Xabier Azpiroz.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena eta Ricardo Arangoa.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko batzarreko akta onartzea.

2019ko irailaren 25eko ohiko batzarreko akta, eta urriaren 16ko ezohikoa, deialdiarekin batera bidali dira eta bildutakoek aho batez onartu dituzte.

2.- Alkate ebazpenak.

Alkateak irakurtzen ditu orain arte emandako alkate ebazpenak:

- 2019/122 alkate ebazpena irailaren 24koa NUFK-i zuzendua Urriaren 4ean Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioak eginen duen Batzar Nagusi Berezirako Santos Echeagua Oronozen esku uztea udalaren ordezkaritza.
- 2019/123 alkate ebazpena irailaren 25eko Angel Echarriri obra baimena emanaz Berueteko 12. Poligonoko 3. Lursailean atea ireki eta aparkatzeko gunea egiteko.
- 2019/124 alkate ebazpena irailaren 26koa baimena emanaz Cristina De la Torre Prietori, Aizarozko gazteen izenean kultur etxeko gela handia erabiltzeko asteburu edo oporraldi garaietan, abenduaren 31a arte proba moduan.
- 2019/125 alkate ebazpena irailaren 27koa baimenduz Xabier San Martinek egindako eskaera Arraratsko Etxaundiko bordaren 2. Etxebizitzan kalefakzio eta ACS sistema aldatzeko.

- 2019/126 alkate ebazpena irailaren 27koa ez onartuz Juan Jose Ollo Alcasenak aurkeztutako dokumentazioa udaleko bigarren pisuko A etxebizitzaren alokairako esleipenerako, eskaera 7. Baldintzan zehazten den epetik kanpo aurkeztu delako.
- 2019/127 alkate ebazpena urriaren 2koa, Encarnacion Jimenez eta Francisco Javier Navarretek, Arraratsko 14. Poligonoko 16. Lursaileko katastroko aldaketaren kontra jarritako helegitearen inguruan kontzejuari jakinarazpena egin eta espedientea Nafarroako epaitegi administratibora bidaltzeko onartuz.
- 2019/128 alkate ebazpena urriaren 28koa M^a Luisa Goicoecheari obra baimena emanaz Erbitiko 7 poligonoko 17 lursailean dagoen etxebizitzako teilatua eraberritzeko.
- 2019/129 alkate ebazpena urriaren 7koa onartuz 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea NA-1013-AM matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.
- 2019/130 alkate ebazpena urriaren 7koa onartuz 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 7614 DDM matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.
- 2019/131 alkate ebazpena urriaren 9koa ez onartzea Florencio Ciaurriz Aristegui aurkeztutako dokumentazioa udaleko bigarren pisuko A etxebizitzaren alokairako esleipenerako, eskaera ez delako osatu eskatutako epean.
- 2019/132 alkate ebazpena urriaren 11ekoa onartuz Aizarotzko Herrikoetxeko eraikinaren kudeaketa arautuko duen plegua eta esleipen iragarkia Nafarroako kontratazio portalean argitaratua izan dadin agindu, proposamenak aurkezteko epea zabalduz urriaren 31a arte.
- 2019/133 alkate ebazpena urriaren 11ekoa onartuz farmaziaren gainean dagoen eta udaleko 2. Solairuko 2. Zenbakidun etxebizitzaren errentak arautuko dituzten pleguak, eta proposamenak aurkezteko epea zabaldu urriaren 31a arte.
- 2019/134 alkate ebazpena urriaren 14koa Baimena emanaz Igor Arroyo Leatxeri Aizarozko herri batzarraren izenean, kultur etxeko areto nagusia erabiltzeko, ostiraletan 18:30etatik 21:30etara "ostiral sozialak" izeneko ekimenerako.
- 2019/135 alkate ebazpena urriaren 16koa Mikel Olza Puñali, iharduera ez kaltegarriko baimena ematea martxoaren 20ko 2019/31 Foru Dekretuaren 7 eta 9. artikuluen arabera, Aizarotzen 15 erlauntz jartzeko.
- 2019/136 alkate ebazpena urriaren 17koa onartuz 2019 urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea SA5567M matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.
- 2019/137 alkate ebazpena urriaren 17koa onartuz Yolanda Arribas Gimeno egindako eskaera, Arraratsko 14. Poligonoko 326. Lursailean yurta bat jartzea, eta baimentzea hau jartzea beti ere jakinda ez duela inolaz ere bizitza erabilera izango ez beste erabilerarik, bakarrik umeak jolastekoarena.

Bildutakoak ontzat ematen dituzte egindako ebazpenak.

3.- Ziurtagiri digitala kudeatzeko hitzarmena.

Alkateak azaltzen du udalak eta kontzejuak NG-an tramitazioak egiteko ziurtagiri digitala behar dutela eta bi urtean behin berri behar dela azken hau eta honek berritzen den bakoitzean 14 euro inguruko gastua daukala. Orain gainera alkatearen ziurtagiri digitala ere eskatu da. Hau guztia kudeatzeko FNMT eta Nafar Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten eta honen baitan aipatutako gastua ez litzateke ordaindu behar, udalak hitzarmen honetan sartzea adosten badu, Nafar Gobernuak ordaintzen duelako. Alkateak irakurtzen ditu hitzarmenaren xede nagusiak eta hortaz bildutakoek gaia eztabaidatu ondoren onartzen dute ondoren zehazten dena:

- Onartzea Nafar Gobernuak eta FNMT entitateak 2001. Urteko abenduaren 27an, sinatutako hitzarmena ziurtagiri digitalak tramitatzeko.

-Alkatea ahalmentzea hitzarmen hau sinatzeko eta Nafar Gobernuan tramitatzea agindu.

4.- Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean gaztandegia haunditzeko iharduera sailkatua.

Alkateak adierazten du aipatutako lursailean, Dorrea Gaztandegiak empresak, handitzeko proiektua aurkeztu duela, handitze honek, iharduera berri baten tramitazioa eskatzen zuela eta hala egin du udalak 2006/93 Foru Dekretuaren 4C gehigarriaren arabera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, Osasun Publikoko Institutoaren eta Urbanizagabeko Ataleko txostenak tramitatuz ...

Urriaren 15ean jaso zen Lurralde Antolamendu Departamentuko baimena (31E/2019 ebazpena) eta bertan iharduera burutu behar den baldintzak zehazten dira, hau ikusita bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

.- Iharduera sailkatua ematea Dorrea Gaztandegia S.A –ri Beramendiko 1. Poligonoko 87. Lursailean gaztandegia handitzeko, 2006/93 Foru Dekretuaren 4C Gehigarriaren arabera, adieraziz iharduera, Ur eta Ekonomia Biribileko Atalak sinatutako 301E/2019 ebazpenera egokitu behar dela.

-Akordio hau sustatzaileari jakinarazi.

5.-Mozioak.

Alkateak aipatzen du, Lizaso asteburuan gertatukoarekin, eta Ultzamako Udalak deitutako manifestaldiarekin bat eginez, adierazpen instituzionala onartu zela alkate ebazpen bidez gertaera hauek salatuz.

Honekin lotuta eta Ultzamako Gizarte Zerbitzuetatik bidalitako mozioa irakurtzen da, bertan gizonetzkoak konplizeak izan behar direla azpimarratzen da, ez delako bakarrik emakumeen arazoa, egiturazko arazo bat delako.

“ Udal honek, gogorki gaizesten du larunbatean gertatutako eraso sexista. Era berean, emakumeak beharko duen laguntza emateko prest dago eta udalak mankomunitatearen bidez dituen baliabideak ere esku jarritzen ditu.

Kalea, eguna eta gaua denok disfrutatzeko dira, eta emakumeek beldurrik gabe okupatzeko eskubidea dute, askatasunez. Emakumeek beraien harremanak kudeatzeko eta euren gorputz eta sexualitateari buruz erabakitzeko eskubidea dute.

Emakumeen kontrako indarkeriak eraso mota hauek bere baitan biltzen ditu eta pertsonen oinarritzko eskubideen eta emakumeen askatasunen urraketa larrietako bat dugu.

Ilido beretik, agerian utzi nahi du, gertaera horiek egiturazkoak direla eta erasoak gizon eta emakumeen arteko botere haremanekin lottuta dagoela, emakumeak gizonetikiko menpekotasun egoeran iraunaraztea helburu duelarik. Beraz, indarkeria sexista

jendartearen arazo publiko eta estrukturala izanik herri txikienetan ere gertatzen diren erasoak dira eta errotik erauzteko esku-hartze aktibo, integral eta koordinatuak behar ditu.

Instituzio publiko bezala, zein hiritar aktibo moduan, eraso sexisten aurkako jarrera konprometitua eduki beharra dugu. Jendarteari dei egiten diogu erasotzaileak babestu eta emakumezkoak erruduntzat jotzen dituen eredu kulturala alda dezagun.

Azkenik, Basaburuko udalaren asmoa da gertakizun matxista horien inguruko isiltasuna haustea, kontzientzia piztea eta jendartea sentiberatzea. Beraz, emakumearekin bat egiteko eta gertaera mota horiek gaitzesteko, elkarretatzea baterako deia zabaltzen du Basaburuko Udalak. Urriaren 30en, asteazkena, 19:30etan Ultzamako udaletxearen atarian. Basaburuko udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu ekintzan parte hartzera, hórrela aukera izango baitute indarkeria sexistaren aurkako jarrera aktiboa eta erasoa pariatu duen enakumearekiko elkartasuna erakusteko.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Bigarren mozio bat badagoela dio alkateak, Auzitegi Gorenak Kataluniako independentismoaren liderren aurka emandako epaiaren inguruan , hau izanik:

“ Espainiako Auzitegi Gorenak Kataluniako independentismoaren liderren aurka emandako epaiaren aurrean, Basaburuko Udalak ondorengoa adierazten du:

1.- Epai honek agerian uzten du Estatuak, botere judiziala trena politiko huts gisa hartuta, gure herrien autodeterminazio-eskubidea defendatzen dugunontzat ezarritako prezioa:gerra ekonomikoa 155 eta espetxea.

2.- Berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa, eta elkartasuna adierazten dio Cataluniako herriari, independentista kondenatuei, haien senitarteko eta lagunei, baita Espainiako Gobernuak gidatuta demokraziaren aurkako errepresio politikoa pairatzen duten pertsona eta erakunde guztiei.

3.- Herrien autodeterminazio-eskubidea lantzeko konpromisoa bere egiten du, herrien asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratu eta erabakiak errespetatuak izan daitezen.

4.- Gure etorkizuna erabaki nahi dugun herrien eta bertako herritarren borondate librearekiko errespetutik abiatuta, gure etorkizuna erabaki nahi dugula berresten du.

5.- Espainiako Gobernuari eskatzen dio bertan behera utz dezala demokraziaren oinarritzko printzipioen aurkakoa den errepresio estrategia.

6.- Espainiako Gobernuari eskatzen dio aske utz ditzala espetxeratuak eta bertan behera utz ditzala erbesteratuen aurkako auzibideak.

7.- Deialdia egiten dio jendarteari deitutako mobilizazio guztietan parte har dezan.”

Bildutakoak aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Bi mozioak laburbilduak, bando bidez zabaltzea ere adosten dute bildutakoek.

6.- Batzordeen informazioa.

- Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Polikiroldegiko sartzeko sistema aldatu da eta argiaren sistema aldatzea ere aztertzen ari dira.

Azaroaren 16an Gartzarongo Pilota Txapelketaren finala burutuko da.

Adinduen yogarako hiru talde egin dira.

-Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Fibra optikoaren instalazioa egiteko falta ziren hiru herrietatik, bik eskaera egin dute, Beruete eta Ihabenek. Hortaz bi proiektua hauek 2020. urteko PDR dirulaguntzetan sartuko dira.

Berueteko errepidea konpontzeko eskaera egin da kontzejutik eta horretarako bilera eskatuko da NG-an hilabete bukaerareko eta ordurako memoria prestatuko da argazkiekin.

Azaroaren bukaeran beste bilera bat egingen da kontzejuekin.

Santosek aipatzen du udal plana berrikusteko EMOT dokumentua onartzeko NG-an bilera egin zela, eta bertan udal plana berritzeko kontratatu den arkitektoak aurkezpen bat egin zuela, industrialgunea eta aurreko planak izan dituen garatzeak aipatuz.

-Garapen Batzordea. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Abelzaintzari buruzko inkestak banatuko dira, Cedernak 1. sektorea bultzatzeko proiektuaren baitan. Betetzeko epea azaroaren 11a arte izanen da.

Jaunsaratsko kontzejuekin bilera egin da, fibra optikoaren instalazioaren inguruan. 2019ko PDR dirulaguntzetan ezin izan zen sartu baina kontzejua ados dago egiteko eta bere gain hartzeko %20ko gastuaren ekarpena. Eta hortaz aurten beste hiru herriekin egingo da.

7.- Informazio orokorra.

- Nafarroako Emplegu Zerbitzutik aurten udako lanetarako kontratatu diren 4 langileen dirulaguntza onartu du, osotara 9.600 eurokoa.

- NUFK , Batzorde Eragilea. Alkateak aipatzen du Batzorde Eragileko ordezkariak banatu zirela eta bera Osasun, Euskara eta Hezkuntza kontseiluko partaide izanen dela.

8.-Erregu-galderak

Santos Etxegiak aipatzen ditu hiru kontu:

-Igoan zakur galdu bat agertu zela eta zakurtegikoak etorri harte bizilagun batek bere zaintzapean hartu duela baina udal eskumea izanik, funtzionamendu araubide bat prestatu beharko dela, zakurtegi batekin hitzarmen bat sinatu...

- Adinduen gelaren kanpoaldean aulkiak edo bankuren bat jartzeko eskaera egin da, podologoak itxaroten ari diren bitartean eserita egoteko.

- Liburutegi antzeko bat jartzea interesgarria iruditzen zaio Apeztegiberrin, (irakurri , liburuak hartu ta ikasteko gunea bat izan ahal da...) adinduen gelaren kudeatzaileekin hitzeginen da honetaz.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.